

302. zk.

Bigarren aroa

Ekainak 1  
2017

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Elkarrizketa

Jesus Estomba,  
Gehituko psikologoa  
4-5. orrialdeetan



## Kirolak

Mailari eutsi dio  
Bidasoak  
9. orrialdean



## Uranzu frontoiaren eraberritze proiektua

3 **Berria** Euskararen erabilerak gora egin du Irunen.

6-7 **Berriak**.

8 **Kirolak** Txingudi Errugbi Elkartearen denboraldiaren amaiera.

11 **Haurren Leihoa** Lekaenea LH2.

12 **Gazteen Lanak** Irungo La Salle DBH4.

13 **Gaztea** Elkarrizketa: Ylenia Benito Brontë liburu-dendako arduraduna.

14 **Gazte infor.**

15 **Agenda**



## Argazki lehiaketa

## Irun atzo Irun gaur

IUA: 5660



**Ainara Lertxundi**

Behia Aiako Harrian.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: [jarozena@irunero.com](mailto:jarozena@irunero.com)

## Foru Karrika



1910eko martxoaren 26ko Osoko Bilkuran Bellido jaunaren proposamenez, Karrika Nagusitik Colon Ibilbidera daraman karrikari, Foruen karrika izena jarri zioten. Goiko argazkian ikusi dezakegun bezala, Merkatuaren atzealdetik pasatzen zen.

Foru hitzak Erdi Aroan herri bati ematen zitzaion araua edo legea esan nahi badu ere, kasu honetan foruak esaten denean Euskal Herriko Foruak aipatzen dira, izan ere.

Euskal Herriak bere arautegi juridiko propioa gordetzen zuen Estatu Espainiarraren barnean,

1876an betiko ezabatu ziren arte. Ohiturazko foru europearrak idazten hasi zirenean, Euskal Herriak batasun politikorik ez zuelako, kode desberdinetan egituratu ziren foruak, funtsean antzekoak izan arren. Bakoitza, batasun edo unitatearen bereizgarritasunaren arabera garatu zen. Horregatik, probintzia bakoitzean ez zik, lurralde-unitate txikiagoetan ere foruak existitu ziren: kontseiluak, haranak, zendeak, etab.

Iturria: José Monje.

*Irungo kaleen izenak.*

### Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun.

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

[amaiaterrazasruiz@gmail.com](mailto:amaiaterrazasruiz@gmail.com)

Ion Otxoa

[ion@943sansebastian.com](mailto:ion@943sansebastian.com)

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L.

ISSN: 1134-0606

**Lege gordailua:**

SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11  
IRUN  
943-61-54-57

**TABISA**  
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49  
HONDARRIBIA  
943-64-54-57



**BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN**



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Wazozaragoria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

# Gora egin du euskararen erabilerak

**%7,6koa da euskararen presentzia kaleko elkarrizketetan, Siadecok Irunen egin-dako azken ikerketaren arabera**



ZUZALDIA	KALBAK
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hondarribia kalea</li> <li>• Belaskoenea</li> <li>• Aduana kalea</li> <li>• Pio XII plaza</li> <li>• Arrika kalea</li> <li>• Jaxxibel kalea</li> <li>• Luis de Urzua kalea</li> <li>• Pinarri kalea</li> </ul>
2	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Colon ibidea</li> <li>• Luis Mariano kalea eta lorategia</li> <li>• Argentinar Errepublikak</li> <li>• Cipriano Larrañaga</li> <li>• Zabalza plaza</li> <li>• Gipuzkoa hiribidea</li> <li>• Juan Arana kalea</li> </ul>
3	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Naberua hiribidea</li> <li>• Santiago kalea</li> <li>• Marboak 8 kalea</li> <li>• Poxpogillo kalea</li> <li>• Pilar eta San Pedro kaleak</li> <li>• Urdenbiza plaza</li> <li>• San Marzial kalea</li> <li>• Urzua kalea</li> <li>• Foinen sarrak</li> <li>• San Juan Harria plaza</li> <li>• Etza kalea</li> <li>• Lareundi plaza</li> </ul>

Bi puntuko igoera izan du euskararen erabilerak Irunen, azken ikerketarekin alderatuta. %5,5koa izan zen emaitza 2007an, eta 7,6ra egin du gora orain. 2016ko abenduan egin dute ikerketa Siadeco enpresako behatzaileek, Irungo Udalaren enkarguz. Eskerrak eman nahi izan dizkie Josune Gomez udaleko Euskara arloko ordezkariak: “Oso ondo burutu dute lana. Lagungarria izango zaigu, euskararen egoerari buruz hausnartzeko”. Kontuan hartu beharra dago, Eustatek 2011n argitaratutako datuen arabera, irundarren %36 dela euskalduna, eta beste %28 ia-euskalduna.

Gorakada izan du kaleko elkarrizketetan euskarak duen presentzia, eta berritasuna da hori. Izan ere, azken ikerketak kontuan hartuta, 1995etik 2001era, bi puntuko galera izan zuen euskararen erabilerak. 2001etik 2007ra, %5,5ean egonkortuta egon zen. Azken hamarkadan, berriz, %7,6raino egin du gora, Siadecoren datuen arabera. “Pozgarria da, jakina. Baina lan asko egin beharra dago oraindik”, baieztatu du Josune Gomezek. Ikerketako metodologiari dagokionez, behaketa zuzena erabili du Siadecok, entzumen ariketa. “Hiritarrak zein hizkuntzatan ari diren apuntatzen dute behatzaileek”, azaldu du Juanjo Allur enpresako ordezkariak. Guztira, 11.592 pertsonaren hizkuntz praktika neurtu dute.

Azken ikerketako gunen eta ordu berberak errepikatu dituzte, datuak alderagarriak izan zitezten. Hiru eremu aztertu dituzte: tren geltokiaren ingurua, Colon ibilbidearen bueltakoa, eta Santiago eta Larreaundi auzoen artekoa. Azken horretan izan du bilakaera gehien euskararen erabilerak. %13koa da, bertan, euskararen erabilera. Beste bietan, %5 inguruan dago. Hiztunen generoari dagokionez, emakumezkoak aurretik daude, baina diferentzia oso txikia dela baieztatu du Juanjo Allur.

Adinean bai, badira alde nabarmenak. Hiritarra zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera. 14 urtez azpiko haur eta gaztetxoaren artean,

%13,3koa da. 15 urtetik 39 urtera arteko tartean, %10aren bueltan dabil. 40-64 adin tartean, %5era egiten du behera, eta 65 urtetik gorakoetan, %3ra ere ez da iristen. Haurren presentziak euskararen erabilerari mesede egiten diola nabarmendu du Allurrek: “40-64 urte arteko helduen artean, euskararen presentzia bikoitza da, haurrak tartean daudenean. Haurrek ere, beraien artean hizketan ari direnean baino euskara gehiago erabiltzen dute, heldu bat dutenean solaskide”.

## Ikastetxeetako sarrera-irteerak eta hizkuntza paisaia ere aztertu dituzte

Haurren eta gazteen artean, ikasgelaz kanpo euskararen erabilera zenbatekoa den jakiteko, ikastetxeetako atarrietara jo du Siadecok. Lehen aldiz egin dute, aurtengo berritasuna izan da. Irungo 13 zentrotako sarrera-irteeretan kokatu dira, entzumen ariketa egiteko (Belaskoenea, Dunboa, Eguzkitza, Elatzeta, El Pilar, Erain Txiki, Hirubide, La Salle, Lekaenea, San Vicente de Paul, Toki-Alai eta Txingudi Ikastola). 8.066 pertsonaren elkarrizketak behatu dituzte. Kasu horretan, euskararen erabilera datua %15,6koa da. Adinaren arabera, ordea, aldea oso handia da. Haur Hezkuntzako umeen artean, euskararen erabilera %24koa da. Lehen Hezkuntzan %11ra egiten du behera. DBHn, %5eko da euskararen erabilera. Hortaz, adinean gora egin ahala, euskara gero eta gutxiago erabiltzen dute irundar gehienek.

Hirugarren ikerketa arloa, hizkuntza paisaiarena izan da: establezimenduen izenak, erakuslehoetan dauden idazkiak, kale izenak, bide seinaleak, publizitate komertziala etab. 1.329 euskarri behatu dituzte, eta horien %9 topatu dute euskara hutsean, eta %14 ele bietan. Guztira, idatziko lau errotulutatik batean euskarak badu presentzia.

## Olaizola

## Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
[info@inmobiliariaolaizola.com](mailto:info@inmobiliariaolaizola.com)  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

JESUS ESTOMBA, Gehituko psikologoa:

## “Norberaren askatasuna amaitzen da, ondokoarena hasten den puntuan”

MOE Munduko Osasun Erakundeak buruko gaitzen zerrendatik ezabatu zuen homosexualitatea, 1990eko maiatzaren 17an. Hogeita zazpi urte beranduago, hitzaldia eskaini du Jesus Estomba psikologoak Irunen. Gehitu Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen elkarteko kidea da, eta Eusko Jaurlaritzaren Berdinu sexu eta genero aniztasunari buruzko informazio zerbitzuko arduraduna. LGTBfobiaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, sexu eta genero aniztasunaren inguruan aritu da Palmera Montero gizarte zentroan.



Hasteko, sexuari eta generoari buruzko kontakizun hegemoniko tradizionalaren azalpena egin du Jesus Estombak, umore kutsu batekin: “Garai batean, orakulu moduko batek, gizakion inguruko iragarpen zehatzak egiten zituen”. Orakulu horren arabera, haur jaioberriak zakila baldin bazuen, mutil sentituko zen, hiru urteren buruan. Beranduago, garuneko ezker hemisferioa garatuko zuen: funtzio kognitiboak, lengoaiarekin, logikarekin, matematikarekin etab. lotura dutenak. Autoritatea eta lehiakortasuna nortasun ezaugarri izango zituen, eta batzuetan oldarkor eta zakar samar jokatu zuen. “Erantzukizun handiko postuak edukiko zituen: agintaritzak, kargu publikoak etab.”, argitu du Estombak. Desira sexuala pizten zitzaionean, emakumeek erakarriko zuten. Emakume batekin ezkonduko zen, eta seme-alabak edukiko zituen.

Aluarekin jaiotzen zen haurra, neska sentituko zen, eta burmuineko eskuin hemisferioa garatuko zuen: afektua, sentiberatasuna, emozioak enpatia. Lan sozialak egingo zituela azaldu du Jesus Estombak: “Erizain, zaintzaile, gizarte hezitzaile...”. Gizonezko batekin ezkondu, eta ama izango zen. Erraz eta arin egiten zituen baieztapenak orakuluak. Baina oso maiz huts egiten zuen. Baldintza horiek betetzen ez zituen jendeak, jazarpena jasan behar izan du historian zehar. “Oso zaila da LGTBfobiaren 2.000 urteko historia

bost minutuan laburtzea”, aitortu du Jesus Estombak. Azaldu du erlijioa izan dela, mendetan zehar, jazarpen horren gidaria: “Infernura kondenatu zituzten”.

Erligioaren lekukoa, legediak hartu zuen. Oso urrun joan gabe, diktadura frankistaren garaian, kartzela zigorra ezarri zieten homosexualari, *Ley de vagos y maleantes* eta *Ley de peligrosidad social* legeekin. “Gizartearentzako arriskutsuak ziren. Bikote heterosexualek desagertuz gero, gizateria amaitu zitekeen”, argitu du, ironiaz, Estombak. 1978an utzi zioten lege haiek aplikatzeari. Alabaina, zientziak jarraipena eman zion homofobiari, 1990ra arte MOEren buruko gaitzen zerrendan egon baitzen. “Ordurako, emakume homosexualak ere haien aldarrikapenei ekin zieten. Baina ez zitzairen arretarik eskaini”, azpimarratu du psikologoak: “Beti joan izan dira atzetik. Gaur egun ere pentsa, zenbat lesbiana daude esfera publikoan?”

Jakina, Estombaren orakuluaren gainerako aurreikuspenek ere huts egiten dute, baina oraindik ez dute homosexualitatearen onarpen maila berdina lortu. Transexualitatea, adibidez, MOEren gaixotasunen zerrendan dago, oraindik. Beste errealitate batzuek, are erritmo motelagoa daramate. Intersexualitatea, sexu organoen anbiguitasuna, adibide egokia da.



KINEESIS

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net)

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOIA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

[www.k-stretch.com](http://www.k-stretch.com)

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640





“Errealitatea moldatzen saiatu gara, marko teorikora egokitzeko. Basakeria da hori”

“Fakturen zerrenda luzea da oraindik”

#### Orakuluaren teoria apurtu du errealitateak

Marko teorikoak eduki izan ditu beti gizakiak, bere inguruko errealitatea azaldu ahal izateko. Errealitatea bestelakoa dela konturatu denean, ordea, marko teoriko horiek moldatu izan ditu. Sexu aniztasunari dagokionez, berriz, kontrakoa egin izan dela uste du Jesus Estombak: “Errealitatea moldatzen saiatu gara, marko teorikora egokitzeko. Basakeria da hori, eta kostu sozial ikaragarria izan du”. Giza sexualitatea askoz aberatsagoa da, elementu biologikoak, psikologikoak eta kulturalak barne hartzen ditu, besteak beste. Era konplexu batean artikulatzen dira gainera. “Su txikian egosten dira. Sexologoen sexuazio prozesu deitzen diote horri”. Bilakaera izaten du giza sexualitateak, eta erabat moldagarria da. “Ezin zaio mugarik jarri, basakeriarik egingo ez bada”, aipatu du Jesus Estombak: “Lerro gorri bakar bat dago, gainditu ezin dena: askatasuna. Norberaren askatasuna amaitzen da, ondokoarena hasten den puntuan”.

Azken hamarkadetan aurrera pausoak eman izan direla agerikoa da. Askok da, ordea, egiteke dagoena: “Fakturen zerrenda luzea da oraindik”. Hasteko, LGBTfobiaren bila-kaerak ez du erritmo berdina eraman mundu osoan, ezta gutxiago ere. Gaur egun, 73 herrialdetan, homosexualentzako kartzela zigorra indarrean dago oraindik, eta 11tan,

heriotza zigorra. Gurean, aurrerapenak handiak izan dira legediari, hezkuntzari eta protokolei dagokienez. Gurutzetako ospitalean genero unitatea dago 2011z geroztik, eta transexualitatearekin lotutako protokoloa du Osakidetza. Gaiarekin lotutako legea indarrean sartu zen, gainera, 2012an. Azken aldian komunikabideetan izan duen oihartzunaren ondorioz, gainera, transexualitatearen ezagutzak eta pertzepzio sozialak hobera egin du.

Gaur egun, LGBTfobia, kasu askotan, ikusezina dela uste du Jesus Estombak. Oso barneratuta ditugun ekintzetan eta pentsamenduetan agertzen da: “Nik neuk, lagun batzuek guraso izango direla esaten didatenean, galdetzen diet: mutila edo neska izango da?”. Haur hori jaiotzen denean ere, sexu eta genero identitatea baldintzatzen saiatuko diren elementu ugari edukiko ditu inguruan: arropak, jostailuak etab. Haziz doan heinean, ezer inposatetik urrun, haurrari espresatzen uztea eta haren adierazpenak entzutea gomendatu du Estombak: “Ondorio argi bat edukitzerakoan esku hartu daiteke, baina ez lehenago. Eta mesedez, haurra, fisikoki ez ukitu, txikitari”. Nolanahi ere, ezin zabalagoa den errealitate bati hesiak ezartzerik ez dago.



Meak nuzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964





FELIX MANSO IBARLA JATETXEA





info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

# Prest dago Uranzu frontoiaren eraberritze proiektua

Urte amaierara arte luzatu daiteke lanei ekin arteko prozesua

Urazu pilotalekuaren eraberritze proiektua aurkeztu du Irungo Udaleko Lan eta Bide arloak. 4,5 miloi euroko aurrekontua izango dute lanek, eta 16 hilabeteko epea edukiko du aurrera eramango dituen enpresak. Obra lehiaketara ateratzeko, ordea, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun sailaren baimena behar du udalak. Jasotzen duenean, 4-5 hilabeteko iraupena izango du esleipen prozesuak. Hortaz, urte amaierara arte luzatu daiteke, gutxienez, makinak Uranzu pilotalekuan ikusteko unea.



**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
www.kopiar.net  
kopiar@kopiar.net  
943 63 93 01

4.163,23 metro koadroko azpiegitura izango da frontoia, eta hiru solairu edukiko ditu. Eraikin bakarra izango da, frontoi txikia ere barne hartuko baitu. "Pilotalekua baino gehiago izango da, balio anitzeko azpiegitura", baieztatu du Cristina Laborda Lan eta Bide arloko ordezkariak. Frontisa eta ezker pareta mantenduko dituzte, baina gainerako elementu guztiak hutsetik eraikiko dituzte. Ikusleentzako sarrera nagusia Sarreria parkean egongo da, eta gainerako solairuetara igotzeko edo jaisteko eskailerak eta igogailuak edukiko dituzte erabiltzaileek eskura. Sarrera diseinatzerakoan, genero ikuspegia kontuan hartu dutela aipatu du Labordak, puntu beltzak ezabatuz. Junkal kalean beste sarrera bat egongo da, hala ere, jokalarientzat eta epaileentzat, besteak beste.

Pilota partidetan izango ditu eserleku gehien Uranzuk. 727ra helduko da, jaso daitzekoen harmailak edukiko baititu. "Frontoi profesionala izango da, goi mailako partidak hartzeko aukera emango duena", adierazi du Labordak. Eskubaloi

partidetan txikiagoa izango da edukiera. Kantxaren azalera, harmailak jasota, 19,85x43koa izango da. Harmailak, aldagelak, komunak eta biltegiak ere egongo dira. Frontoi txikiak bere funtzioa betetzen jarraituko du, baina bigarren solairu bat edukiko du. Bertan, balio anitzeko hiru areto egongo dira. Horietako baten erabiltzailea aurreikusia du udalak. Labordak baieztatu du: "Kemen Dantza Taldea lekualdatzeko konpromisoa dugu".

Pilotalekuaren eraberritzea lantzeko, azpiegiturako erabiltzaile nagusi izango diren Kurpil Kirolak, C.D.Bidasoa eta Halterofilia Irun elkarteekin bildu izan direla adierazi du Labordak. Alde Zaharreko Auzo Elkartearekin eta Irungo Hiritar Foroarekin ere egon dira, proiektua gizarteratze aldera. Helburu hori edukiko du, hain zuzen ere, datozen asteetan aurrera eramango duten ekimenak. Totem batzuk erabilita, pilotalekuaren eraberritze-ari buruzko erakusketa jarriko dute Urdanibia plazan. Sanmartzialen ondoren, hiriko beste puntu batzuetara eramango dute.

## 45 urte egin dituzte San Vicente de Pauleko Majoretteek

Urteurrena ospatu zuten maiatzaren 13an



San Vicente de Paulek Majoreteen taldearen 45.urteurrena ospatu du. Jarduera ugari antolatu zituen joan den maiatzaren 13an. 16:15ean harrera egin zitzaizen, 16:30etan eukaristia eta 17:10ean, egungo Majoreteek ikuskizun ederra eskaini zuten.

Beranduago, 17:30etan, Majoreteen 45 urteko ibilbideko irudiekin osatutako bideoa proiektatu zuten. Urtetan zehar taldean parte hartu izan duten neska guztiei zuzendutako omenaldi hunkigarri gisa balio izan zuen.

Egungo Majoreteez gainera, aurreko urteetako askok parte hartu zuten. Agertokira igo ziren, eta talde argazki bat atera zuten. Azkenik, Majoreteek urtetan zehar lortutako garaikurrez eta argazkiez osatutako erakusketari bisita egin zioten.

## Udako denboraldiari ekingo dio Lapurriturri Informazio Guneak

Hegaztien behaketa izango da ekainaren 4ean, 9:00etan

Hegaztien behaketa antolatu du Irungo Udaleko Garapen Iraunkorra arloak. Erlaitzen dagoen Lapurriturri Informazio Guneak udako sasoiari hasiera emateko saioa izango da. Aste Santuan ireki zuten urtean lehen aldiz. Hemendik aurrera, ekainetik urrirako asteburuetan irekiko dute. Uztailan eta abuztuan, jai egunetan ere bai.

Oraingoan, gidari aditu baten laguntzarekin, hegaztien behaketa saio bat egin ahal izango dute interesa dutenek. Aiako Harriko ohiko hegaztiez gainera, inguruko zuhaitzez eta begetazioaz gozatzeko aukera egongo da. Ekainaren 4ean, 9:00etan izango da hitzordua, Lapurriturri. Antolatzaileek prismatikoak eta hegaztien gida bat eraman dezaten gomendatu dute. Interesa duten guztiek izena emateko aukera dute dagoeneko, irun.org web gunean edo 010 telefono zenbakira deituz.

Udaran eta udazkenean zehar antolatzen dituen jardueraz gainera, Aiako Harria natura parkeri buruzko informazioa eta azalpenak eskaintzen ditu Lapurriturri. Bost ibilbide tematiko proposatzen ditu: elurtegiak, meatzaritza, ikazkintza, gerrak eta flora-fauna). Iaz, 1.100 bisitari baino gehiago eduki zituen informazio guneak.



## BAKAILAOA DASTA EZAZU



IÑIGO CAMARERO, Txingudi Errugbi Elkarteko kidea:

## “Denboraldia orokorrean ikusita, oso balorazio baikorra egin dezakegu”



Euskal Ligako lehen mailara igotzetik gertu izan da Txingudi Errugbi Elkarteko talde nagusia. Play off-a jokatu du, jaitsiera ekiditea helburu zuen Gernikaren filialaren kontra. 23-27 galdu zuen Txingudik Plaiaundin, eta 27-12 Gernikako Urbieta zelaian. Denboraldiaren balorazio baikorra egin dute, hala ere, klubean. Iñigo Camarero *Kamata* kide beteteranoa da, lehen taldean jokatzen segitzen du, baina klubaren ikuspegi globala ere badu.

**Joaneko partidaren Gernikari eutsi zenio, baina itzulikoan gehiago izan zen.**

Ondo ibili ginen kanporaketa osoan zehar. Gernika filiala da, eta kasu hauetan, talde nagusiko zenbait jokalariek erabil ditzake. Hala egin zuen, eta maila asko handitu zuen horrela. Hori dela eta, nahiz eta guk bi partida on jokatu, ezin izan genuen are-rioa gaititu.

**Denboraldian zehar Arrasaterekin lehiari ibili zarete, lehen postuaren bila. Egingo dako sasoiarekin pozik?**

Bai, hasi ginenean ez genuen igoera helburu. Goian ibili nahi genuen, besterik gabe. Hori bete dugu, baina igoera lortzetik pauso bakar batera gelditu gara, gainera. Esan genezake oso denboraldi ona egin dugula. Denboraldia orokorrean ikusita, oso balorazio baikorra egin dezakegu. Uste dut denok daukagula pentsaera hori klubean.

**Amorrua eman al dizue igoera horren gertu eduki izanak?**

Pena ematen du, baina gertatu zena es-

pero zitekeen, egia esan. Horregatik, denboraldian zehar izandako sentsazio onekin geldituko gara.

**Azken hiru urteetan bi aldiz egon zarete igotzetik oso gertu. Hurrengo denboraldian ere saiatuko zarete?**

Egoera ez bada gehiegi aldatzen, helburu horrekin abiatuko gara. Taldeak beherkada handi samarra izan du azken urteotan, entrenatzaileek eta jokalariek multzo handi batek taldea utzi zuenetik. Hondoa jo genuela uste dut, eta orain pixkanaka gorako bidea daramagula. Etxeko jende asko dugu orain, jende gaztea, batez ere. Esango nuke zentzu horretan aurrera pauso bat eman dugula.

**Txingudi Errugbi Elkarteak izango al du jarduerarik udaran?**

Uztailaren 8an Beach Rugby edo hondartzan errugbi lehiaketa egingo dugu, 10:00etatik 20:00etara Hondarribiko hondartzan. Bestalde, 8 urtetik 18 urtera arteko haurrei eta gazteei zuzendutako kanpua burutuko dugu uztailan. Elkartearen web gunean aurki daiteke bi ekimenei buruzko informazio gehiago.

**Klubari izena aldatu eta Txingudi jarri zenioten, eskualde osoko jendea erakarri ahal izateko. Zein da harrobiaren osasuna?**

Oso mugatuta geunden Irun izenarekin. Txingudi izenarekin eremu handiagoa har dezakegu, Hondarribian, batez ere, askoz erakargarriagoa baita, orain, gure elkar-tea. Hiru urteko epean harrobia asko landu dugu, eta emaitzak nabari dira. Txikiak gero eta gehiago hurbiltzen dira Plaiaundira, eta gure eskola haziz doa.

**Emakumeen errugbia ere lantzen ari zarete, momentuz, Hernani Errugbi Elkartearekin batera. Aurrera al doa Txingudiko taldea ateratzeko proiektua?**

Ahaleginak egin ditugu, baina ez dugu emakumeen kopurua handitzerik lortzen. Baditugu 7-8 emakume normalean entrenatzen direnak, horietatik lauk egin zuten fitxa Hernanin. Horrela bi urte daramatzagu, baina aurrerapen handirik ez dugu lortzen. Guk ez dugu etsiko, lanean segituko dugu.

**Zein aurreikuspen egingo zenuke hurrengo sasoirako, klubaren ikuspegitik?**

Gure helburu nagusien artean dago errugbi eskola lantzen jarraitzea, haur gehiago erakartzea, eta ahal dela, emakumeen kopurua handitzea. Oso gertu dugu, era berean, klubaren 50. urtemuga. 2019an izango da, eta hurrengo denboraldian, ospakizun hori prestatzen hasiko gara.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

**GORA  
SAN MARTZIAL!**



# Geratzeko itzuli da Bidasoa

Mailari eustea eta Errege Kopako zortziko finalean parte hartzea lortu du Artalekuko taldeak



Denboraldi ona osatu du Bidasoak goi mailara bueltan. Helburu nagusia bete du, mailari eutsi baitio, jardunaldi baten faltan. Hurrengo sasoian Asobal Ligan jarraituko duela ziurtatuta, urteko beste lorpenaz gozatzeko ordua du orain Jacobo Cuétararen taldeak. Errege Kopako zortziko finalean ariko da ekainaren 9tik I Ira, Leonen.

2016-2017 denboraldiko helburua erdietsi zuen Bidasoak maiatzaren 20an, Asobal Ligari eutsita. Azken aurreko jardunaldian ospatu ahal izan zuen, Atlético Valladolid Artaleku kiroldegian menderatuta (34-31). Nahi baino beranduago, azkenean. Izan ere, apirilaren 2an lortu zuen Irungo taldeak aurreko garaipena. 29-17 txikitu zuen Bidasoak Huesca. 21 puntu bildu zituen orduan, hortaz, esku-eskura zirudien helburuak. Orduz geroztik, aitzitik, porrotak kateatu dituzte horiek, bata bestearen atzetik. "Zorte txarra eduki genuen. Bi partida gol bakarrek aldeaz galdu genituen", gogorarazi du Kauldi Odriozola jokalaria (28-27 Granollers, 33-34 Ciudad Encantadaren aurka, Artalekun).

Edonola ere, jaitzieraren mehatxua behin-betiko baztertu ezinean ibili zen Bidasoa, azken aurreko jardunaldira arte.

Valladolidi Artalekun irabazita, arnasa hartu zuten taldeak, klubak eta zaleek. Kostata iritsi zen, ordea. Arerio zaila izan zen Valladolid. Maila handiko eskubaloia

erakutsi zuen, eta lehen zatian, batez ere, nagusi izan zen Artalekuko pistan. Bost goleko abantaila ere eduki zuen, 16. minutuan. "Guk ez genuen etsi, gureari eutsi genion, eta azkenean, gauzak atera zitzaizkigun", adierazi du Odriozolak. Bigarren zatian hobera egin zuen Bidasoak, aldea murriztuz joan zen, eta bost minutu falta zirela, markagailuan aurretik jartzea lortu zuen. Azken minutuetan, Kauldi Odriozola bera izan zen protagonista, Asier Zubiria atezainarekin batera. Bi jaurtiketa gelditu zizkien usurbildarrak Hernándezi eta Serdiori. Kontraerasoetan, Kauldik ez zuen barkatu. Azken lau golak sartu zituen zumaierak, bidasoarren garaipena bermatzeko.

## Ospakizunak eta itxaropenak

Neurketa amaituta, urtean zehar emandako babesa eskertu zieten jokalaria bidasoarrek zaleei. Haien ere txalo zaparrada jaso zuten, Asobal Ligara bueltan egindako lanagatik. Ospakizunerako arrazoi bikoitza zegoen gainera, duela 30 urte Bidasoaren lehen liga irabazi zuten jokalari

lariak omenaldia jaso baitzuten. Irungo hamaika jokalarik, Pasaia batek eta antzinako Yugoslaviako bik osatzen zuten 1986-1987ko Elgorriaga Bidasoa. Urantz pilotalekuan hasi zuten denboraldia, eta Artaleku kiroldegian amaitu, sasoiaren hasieran pentsaezina zirudien liga eskuratuz. Klubaren urrezko aroaren hasiera izan zen hura.

Agurretarako tartea egon zen Artalekun, jokalaria batzuek ez baitute Irunen jarraituko. Pedja Dejanovic atezain bosniarrak urteko jokalaria erregularrenaren saria jaso zuen El Muro Amarillo peñaren eskutik. Hunkituta agurtu zuen Artaleku, Bidasoa utziko baitu, hiru urtez Irungo taldearen atea babestu eta gero. "Oso gustura egon naiz", baieztatu zuen prentsaurrekoan: "Zalego handia du Bidasoak, eskerrik asko denoi". Jacobo Cuétara entrenatzaileak

ere agerraldia egin zuen komunikabideen aurrean, Bidasoan emandako lehen urteaz harro, eta etorkizunerako itxaropenez: "Lehen urtea izaten da zailena, eta guk mailari eustea lortu dugu. Orain, luzaroan geldituko da Bidasoa Asobal Ligan". Hurrengo urterako aurreikuspenez galde-tuta, Asobal Ligak, orokorrean, aurrera pausoa emango duela erantzun zuen Cuétarak. "Gu ere hazi egingo gara, urte bete lana daramagutako. Jokalariak haien

maila hobetu dute, eta taldea indartu egin da", azaldu zuen entrenatzaileak.

## Kopak borobilduko du denboraldia

2017-2018 denboraldiari begiratu aurretik, hitzordu handi bat du Bidasoak. Errege Kopako Zortziko Finalean parte hartuko du, ligako talde onenekin batera. Txartela lortzeko, balentria egin zuen martxoan, Benidormen kontrako kanporaketan. Zortzi goleko aldea atera zion arerioak jonekoan, baina desabantaila irauli eta bederatzi goleko errenta lortu zuen Bidasoak Artalekun, martxoaren 18an (32-23). Ondorioz, Leongo Zortziko Finalean ariko da Bidasoa ekainaren 9tik 11ra, Barcelona, Ademar, La Rioja, Granollers, Anaitasuna, Huesca eta Morrero taldeekin batera.

Granollersen aurka ariko da Bidasoa ekainaren 9an. Irabaziz gero, Barcelona-Huesca kanporaketako garailearen kontra jokatuko luke

finalerdian. Finalaren atarian egotea sasoiari amaiera bikaina ematea izango litzatekeela uste du Jacobo Cuétarak: "Horretarako Europako lehiari aritu den Granollers mendean hartu beharko dugu. Erronka zaila da, baina gogor lan egingo dugu, ilusio handiarekin". Gol bakarrek errenta izan da Granollers eta Bidasoaren artean, ligako bi neurketetan. Irundarren alde, lehen itzulian, eta kataluniarren alde, bigarren.

"Lehen urtea izaten da zailena, eta guk mailari eustea lortu dugu. Orain, luzaroan geldituko da Bidasoa Asobal Ligan"  
Jacobó Cuétara, entrenatzailea

"Guk ez genuen etsi, gureari eutsi genion"

Kauldi Odriozola, jokalaria



**PLAIAUNDI**  
INSTITUTUA



**PLAIAUNDI**  
INSTITUTUA



✉: Plaiaundi z/g IRUN (GIPUZKOA)  
🕒: 9-14h y 16-18h ☎: 943 61 75 47  
✉: [info@plaiiaundi.eus](mailto:info@plaiiaundi.eus)

[www.plaiiaundi.hezkuntza.net](http://www.plaiiaundi.hezkuntza.net)



### BATXILERGOAK

- Zientziak
- Giza eta Gizarte-Zientziak

### LANBIDE HEZIKETA

#### *Erdi Mailako HZ*

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak
- Administrazio Kudeaketa

### LANBIDE HEZIKETA

#### *Goi Mailako HZ*

- Gizarteratzea
- Haur Hezkuntza
- Administrazio eta Finantzak
- Dietetika
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Garraioa eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

### Batxilergoa

**Matrikula epea**  
Ekainaren 20tik uztailaren 6ra

### Lanbide Heziketa

**Aurreinskripzioa**  
Ekainaren 5etik 16ra

**Matrikula Epea**  
Uztailaren 13tik 19ra

# Landareekin esperimentua

Esperimentuaren urratsak:



Koloratzailea  
bota

Liherranga koloratzaile gomiaz, uedira eta  
loria hasten dira. Ondoren kristal bota  
uz sartu botea tanta tiki botzuk  
botzen ditugu.  
Geroz orda nahastu ditugu.  
Lortutako ontzia lorea sartzen ditugu.



Uretan nahastu



Loreak ontzian sartu eta  
hurrengo egunean ea zer  
gertatzen den konprobatu



bideosare

- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

Bideoak zure erara!



bideosare.com



## Irungo La Salle DBH4

## EGUN BATEZ

Udaberriko goiz argitsu batean irten nintzen mendi gain bateko haritz sendo batean egin nuen krisalidatik. Nire hegoak aurrean neukan itsaso zabalaren kolore berekoak ziren. Azpian neukan nektar gozou xurgatu nuen, goseak hilik bainengoen. Sabela bete ondoren hegoak zabaldu eta lagun hasi nintzen.

Haizea alde nuela, gorantz igo nintzen, inguruan neukan edertasunaz jabeizeko. Zelaien berdearen, itsasoren urdinaren eta mendiko lore basatien ortzadarraren kolore-nahasketak liluratu egin ninduen. Amasa sukoi hartu eta irribarre batez aurrera jo nuen.

Urrinean baserritar bat ikusi nuen, bere behia laztantzen. Behiaren bizkarrean pausatu nintzen. Bikote polita iruditu zitzaidan. "Ze polita" Esan zuen baserritarrek. Hark ez zekien nik ulertuko nionik, baina asko eskertu nizekion bere hitz adituak.

Mundu osoan zehar hegaz egiteko irrika sartu zitzaidan, ea beste izaki guztiak baserritar hau bezain alaia eta jatorrak ere ziren ikusteko.

Denbora luzean hegaz egon ondoren herriz jau beharria sentitu nuen. Beraz, lore hotiz heteriko belardi batean egin nuen atseden. Nektarra xurgatzen ari nintzela nire antzeko beste tximeleta bat hurbildu zitzaidan. Lagun minak egin ginen eta hirira joan nahi nuela esan nion, mundua ezagutzeko. Nirekin etorri nahi zuen galdetu nionean ezetako biribila eman zidan. Nik ez nuen ulertu nolatan ez zuen hiria ezagutu nahi. Hain zen lasaia dena belardi hauetan, hiriko bizitzak zoragarria izan beharke zukeen.

Gure bideak banatu egin ziren eta laster ikusi nuen hirirako bidea. Han belardi gutxiago zeuden baina etxe batek inoiz entzun gabeko doinu bat iristen zen. Hara erakarri ninduen. Mutiko bat saxofoia jotzen ari zen. Soinu zoragarria iruditu zitzaidan eta hirira sartu nintzen han zer beste minari aurkituko nukeen nire buruari galdezka. Ez zen, ordea, nik uste nuen izan.

Hiriarri guztetik begiratu bat eman nion, izaki guztiak presaka zebiltzan, ez nuen basoan bezala katagorriak ikusi ezkerretatik jaten, txakur otzanak baizik, jabeak jaurtitako piloten atzetik korrika, zelai zabaletan beharrean,

Etxe bateko lorontzi polit batean pausatu nintzen, hartako lore bati nektarra ateratzeko asmoz. Baina ezer egiten saiatu aurretik atso zahar batek uxatu ninduen hortziki. "Alde hemendik, zomorro nazkantea!" Oihukatuz. "Non dago baserritar haren alaitasuna?" Galdetu nion nire buruari.

Orduan konturatu nintzen mutiko haren saxofoiaren doinua edo beharretan aireak egiten zuen fereka oso urruti geratu zirela, eta hirian, horren ordez, kotxo buruabatsuen zanita eta estresaren usaina nabari zirela. Nire ilusio printzak itzaltzen hasi ziren. Hiria ez zen zelai bezain argia, ezta mendia bezain lasaia ere.

Nire seme-alabak hiri batean jatorzeko aukera ezeztatu nuen eta herriz ere nire jaiolekura itzultzea erabaki nuen. Orduan ulertu nuen zergatik esan zidan ezetz honako bidean aurkitu nuen tximeleta hark.

Bidaia luze eta neketsu baten ondoren jaiotzen adar bereri itzultzea lortu dut, eta hemen nago, hirira bidean ezagututako tximeletarekin izandako larbatxoak arrautzetatik noiz irteango zain, pozik, bizitza luze bezain motz honetan ikusi eta ezagutu ditudan leku, egoera eta izaki guztiak pogoan.

Badakit ezin izango dudala nire haurtxoen ondoan egon jaioko diren unean, baina bai bere antza izango dutela, eta espero dut nire itxaropena mantentzea eta niri bezala inoiz ez ahaztea.

Amaia Irastorza

June Madejón

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andreari jasoa (Irun, 1959 VIII - 5)  
"Etortzen giñenian baratzetik porruakin,  
gure amak esatentzigan broman: Ai umia,  
oiek apaizan porruak dittun" (El Bidasoa,  
1959-IX-5)

## Lagunekin artian

Fernando'k esantzion lagun bateri:

- Eztakizula ze egiten duen lendabiziko bei batek eguzkiya ateetzen denian?

Eta bestiak esantzuen:

- Eztakit zer egiten dun.

- Itzala.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga  
Euskaraz, Irunen barrena.





## Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27  
943 635259  
IRUN  
J. M. Iparragirre  
kalea, 10 - behe 4  
IRUN  
652 777 360  
kettysacademy@gmail.com

**EGONALDIAK EEUetako famillrekin**



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

YLENIA BENITO, Brontë liburu-dendako arduraduna:

## “Liburuak ez dira supermerkatuetan erosten”

Krisi etengabe dagoen kazetaritza alde batera utzi, eta ziurgabetasun egoera bizi duen beste sektore batean murgildu da Ylenia Benito 31 urteko irundarra. Brontë liburu-denda ireki du, Kale Nagusiko 16.ean. Izenak berak Benitoren asmoen berri ematen du: Charlotte, Emily eta Anne Brontë ahizpa ingeles, XIX.mendean gizonezko ezizenekin idatzi behar izan zuten emakumeen omenez jarri dio izena.



Charlotte Brontëren Jane Eyre eleberraren (1847) irakurketa dramatizatu egin zuen, hain zuzen ere, Ana Perez aktore irundarrak, liburu-dendaren inaugurazio ekitaldian, maiatzaren 19an. Izan ere, azken aldi nagusituz doazen liburu-denda komertzial handiekin alderatuta, proposamen ezberdina eskaintzen du Brontëk. Klasikoek leku zabala dute, bigarren eskuko liburuak daude, eta argitaletxe txiki eta alternatiboetako liburuek ere badute tokia. “Ez nuen nahi arrakasta komertziala duten liburuek gainerako guztia estaltzerik”, aitortu du Ylenia Benitok.

Beste planteamendu baten alde egin du liburu-dendako arduradunak, lehia komertzialaren zailtasunei eta aurrekari beldurgarriei aurre egiteko. Urtarrilean, atak behinbetiko itxi zituen Oskarbi liburu-dendak. Halako berriek “tristura handia” eragiten diotela adierazi du Benitok: “Fruta fruta-dendan erosten dugu, haragia harategian, eta liburuak? Liburuak ez dira supermerkatuan erosten, liburu-dendan baizik”. Donostiako *Ventaneras* emakumeen literatura tailerrak ere eragina izan du Ylenia Benitoren apustuan: “Sekulako pasioa transmititu zidaten han ezagutu nituen emakumeek. Konturatu nintzen badagoela jende pila bat, liburuak maite dituenak”.

### Zein urrats eman zenituen, liburu-denda ireki arte?

“Hasteko, udal liburutegira jo nuen, Iñaki Ceberio liburuzainarekin eta Mertxe Tranchekin hitz egitera. Auskalo liburu denda eduki zuen Tranchek 90eko hamarkadan, Larretxipi kalean. Haien iritziak bildu nituen, eta esan zidaten apustu arriskua zela, baina jendeak irakurtzen duela, eta liburuak gustatzen zaizkiola. Bidasoa bizirik-era jo nuen ondoren, eta ikaragarri lagundu didate. Harra barruan nuen, eta ezin nuen atera. Aurrera egin nuen, gelditu gabe. Urtarrilean hasi nintzen mugitzen, eta lauzpabost hilabetean egin dut dena”.

Nortasuna dario liburu-dendari. Harrizko hormak eta kolore zuri argitsua uztartzen ditu. Bigarren eskuko altzariak ditu, Ylenia Benitok berak zaharberrituak. Sofa, butaka, aulkia, mahaitxoak eta kafe makina ere baditu. Liburu batekin eroso egoteko moduko lekua da. “Kanpora joaten nintzenez, horrelako liburu-dendak ikusten nituen hiri askotan, eta sekulako inbidia ematen zidaten”, aipatu du Ylenia Benitok: “Orain, harro esan dezakegu halako bat dugula Irunen”.

### Liburu-dendaren izenak XIX.mendera garamatza, literaturako klasikoetara. Leku handia eskaini diezu liburu-dendan?

“Klasikoei dagokienez, beti pentsatu izan dut literaturaren oinarria direla. Ez dut esan nahi garaikideak irakurri behar ez direnik, baina klasikoak apustu segurua dira. Istorio zoragarriak daude, eta jendeak ezagutu ditzan nahi nuke. Charlotte Brontëren Jane

Eyre irakurtzen duzu eta garai hartako errealitatera eramaten zaitu. Klasikoekin historia ikasten duzu, eta istorio politak irakurtzen dituzu, gainera”.

### Bigarren eskuko liburuak ere eskainiko dituzu. Zein izango da funtzionamendua?

“Jendeak kaxa osoak ekarri izan dizkit orain arte. Norbaitek saldu nahi baldin baditu, nik erosiko dizkiot, baina argi eduki dezala hau ez dela dirua ateratzeko modua. Jende askok liburu mordoa du etxean, eta badaki beste norbaitek balio gehiago emango diela. Liburu horiek beste irakurle bat aurkituko dute gero, eta pozgarria da hori. Liburu batzuk berri-berriak daude, behin irakurrita. Edo edizio bitxiak topatu daitezke, oso politak”.

Nire ustez, bigarren eskuko liburu bat irakurtzea esperientzia bikoitza da. Liburuaren istorioan murgiltzen zara, baina aldi berean, aurreko irakurlearen arrastoak topatzen dituzu. Markatutako orriren bat edo esaldiren bat aurkitzen duzu, eta aurreko irakurleak zergatik egin duen, edo momentu horretan zer sentitzen zuen pentsatzea oso ederra da”.

Ikerketa lana egitea egokitu zaio Ylenia Benitori, liburu-dendako apalak lehen liburuekin betetzeko. Ezagutzen ez dituen generoen kasuan, edo haur literaturari dagokionez, esaterako, aholkua eskatu behar izan du. Aurkikuntza atsegina izan da haur literaturaren mundua, Brontëko arduradunarentzat: “Liburu eta edizio politenak ekartzen ahalgindu naiz. Didaktikoak diren liburuak lehenetsi ditut”. Hemendik aurrera, bezeroen eskaerak eta gomendioak kontuan hartuko ditu. Mezu baikorrak jaso ditu orain arte, eta irundarren literatur zaletasunak behatuz ari da: “Historia asko gustatzen zaie, bertakoa, batez ere. Mertxe Trancheren *Los buenos hijos*. *Gerra Civil en Irun* liburua, adibidez, best-sellerra da”.

Auzoko bizilagunak, bereziki, liburu-denda berriarekin “liluratuta” daudela baieztatu du Ylenia Benitok. Berak argi eduki zuen Alde Zaharrean ireki nahi zuela liburu-denda: “Beste hiri batzuetan, tabernez gain, artisauek eta liburu-dendak ikusi izan ditut beti alde zaharretan. Gainera, leku ezaguna da, edonori esaten diozu liburu-denda berria Kale Nagusian ireki dutela, eta badaki nora etorri behar duen”.

Liburuaren salmentaz harago, kultur munduaren topagunea eskaini nahi du Ylenia Benitok. Liburuaren aurkezpenak, hitzaldiak, tailerrak eta eztabaidak antolatuko ditu. “Liburutegiarekin elkarlanean ariko naiz, beti ere. Ez baikara kompetentzia, anai-arrebak baizik”, nabarmendu du Brontëko arduradunak. Egitasmoa zaindu du Ylenia Benitok, eta liburuaren eta kulturaren zaleak Brontë hartzeko irrikaz dago.



## MUSIKIRUN

**Zer?** VII. MUSIKIRUN maketa lehiaketako 3. finalerdia. Lehenik Bihotzkada Pop-Rock estiloko talde zizurkildarraren txanda izango da, eta gero Who is it! Donostiako Pop-Funk-Rock taldeak eskainiko du kontzertua.

**Noiz?** Ekainak 3

**Ordua?** 20:00etan.

**Non?** Estebenean.

**Prezioa?** Doan.

## AHOLKULARITZA LANBIDE ETA BOKAZIO ORIENTAZIOAN

**Zer?**

Orienta ezazu zeure etorkizuna tailerra.

Orientazio akademikoari eta profesionalari buruzko informazio zerbitzua, gazteei eta beren familiei zuzendua. Zure es-

kaera erregistratutakoan, zurekin harremanetan jarriko gara kontsulta-data zehazteko.

**Noiz?** Ekainaren 5ean.

**Orduetgia?** Arratsaldeko orduetgia, 16:00etatik aurrera.


**Izen-ematea eta informazio gehiago:**

<http://www.elespazio.com>.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian  
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40  
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)  
- Webean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)  
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## MARRAZKETA ETA PINTURA UDAL AKADEMIA



**Noiz:** Uztailaren 3tik 28ra.

**Hartzaileak:** 6 urtetik gorakoentzat.

**Non:** MARRAZKETA ETA PINTURA UDAL AKADEMIA  
Reina Fabiola, 28- 1º.

**Izen-emateak:** Ekainak 10era arte zuzenean Marrazketa eta Pintura Udal Akademian.

**Prezioa:** 16 orduko matrikula: 84,46 €.

**Telefonoa:** 657776922/ / 675717407.

**E-maila:** [akademaiarungo@gmail.com](mailto:akademaiarungo@gmail.com).

## HITZALDIA: NERABEAK ETA TEKNOLOGIA DIGITALAK: ERABILERA ARDURATSU BATERANTZ

**Zer?** Hitzaldia: Nerabeak eta teknologia digitalak: erabilera arduratsu baterantz. Fis-hernet Hezkuntza-Teknologia Taldea eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Teknologia digitalen erabilpenak onura asko badakartza ere, ezinbestez arrisku batzuen aurrean jartzen gaitu: Cyberbullying, Sexting, edo Grooming arriskuak, besteak beste.

**Noiz?** Ekainak 6.

**Orduetgia?** 19:00etan.

**Non?** Martindozenea Gaztelekuan.



**Prezioa:** Doan.

**Zuzenduta:** gurasoak, heziketa-eremuko pertsonak...

*Arrigain Asesores S.L.*

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



### Zerbitzuak:

*Kudeaketa administratiboa, laborala, kontularitza eta zergenak  
Ibilgailuen eskualdaketak  
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordeketak...*

*Errenta aitortpenak  
Aseguru orokorrak  
Eta abar...*



**Ekainaren 10 eta 11**

**Zer?** Irungo Mendizaleak Elkartek antolatutako irteera Errioxara: Larunbata 10: Ortigosa de Cameros - Anguiano. Igandea 11: Anguiano - San Millan de la Cogolla.

**Informazio gehiago:** Irungo Mendizaleak Elkartearen asteartean eta ostegunetan 19:00-21:00 edo [www.irungomendizaleak.com](http://www.irungomendizaleak.com) web orria.



**Ordutegia?** Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandeetan eta jaiegunetan 11:30-13.30.

erakusketa.

**Non?** Palmera Montero Gunea - Leandro Agirretxe 1.

**Non?** Amaia Kzn.

**Prezioa:** Doan.

**Ordutegia?** Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-22:00.

Larunbat eta igandeetan: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

**Ekainaren 1etik 11ra**

**Zer?** "Artilleriak 200 urte"

**Ekainak 3**

**Zer?** Ipuin kontalaria: Ameli Ipuinen Jostune. 3 eta 8 urte arteko umeentzat. Munduko eta bertako ipuinak kontatuko dira, non gizakiak hainbat abentura pasako dituen ama lurra eta natura bidelagun dituelarik. Ikasi, gozatu eta dibertitzeko prest?

**Ordutegia?** Ostirala eta igandea: 10:00-20:00; Larunbata: 10:00-21:00.

**Prezioa:** 3 euro (umeak, 12 urtera arte dohainik).

**Informazio gehiago:** [http://bioterra.ficoba.org/micro\\_Bioterra/index.asp](http://bioterra.ficoba.org/micro_Bioterra/index.asp)

**Ordutegia?** 12:00etatik 13:00era.

**Maiatzak 31**

**Zer?** Paul Collins-en kontzertua.

**Non?** Txingudi Ekoetxea, Pierre Loti Ibilbidea - PLAIAUNDI.

**Non?** Urdanibia plazan.

**Prezioa:** Doako sarrera.

**Ordua?** 20:00etan

**Telefonoa:** 943619389

**Prezioa:** Doan.

**Ekainak 2tik 4ra**

**Zer?** Aurten ere, ingurumenarekiko begirunearekin lotutako produktu eta zerbitzu profesionalen eta azken erabiltzaileen ezinbesteko topagune bilakatuko da Bioterra.

**Ekainaren 18ra arte**

**Zer?** Luis Irisarriren argazki erakusketa.








**teleinmobiliaria**

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705

info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

## PRIMERAKO AUKERAK

 <p><b>Pisua salgai Irún Palmera</b> 105. Auzo 66 m<sup>2</sup>, 2 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04537 <b>131.500 €</b></p>	 <p><b>Pisua salgai Irún Pinar</b> Auzo 67 m<sup>2</sup>, 3 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04548 <b>110.000 €</b></p>	 <p><b>Pisua salgai Kolon gertu</b> Auzo 65 m<sup>2</sup>, 3 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04545 <b>125.000 €</b></p>
 <p><b>Pisua salgai Irún Erdialdean</b> Auzo 110 m<sup>2</sup>, 4 gela, bi kamarak, komun 2, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04543 <b>162.000 €</b></p>	 <p><b>Pisua salgai Irún Dunboa</b> Auzo 80 m<sup>2</sup>, 3 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04544 <b>230.000 €</b></p>	 <p><b>Pisua salgai Irún Kolon</b> Auzo 77 m<sup>2</sup>, 3 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 03563 <b>190.000 €</b></p>
 <p><b>Pisua salgai Irún Puente</b> Auzo 88 m<sup>2</sup>, 3 gela, bi kamarak, egozleak, sukaldaria, berrikuntza, gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04538 <b>250.000 €</b></p>	 <p><b>Lokala salgai Irún Juan Arana</b> Auzo 33 m<sup>2</sup>, 60 m<sup>2</sup> solairu, komunak, egozleak eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04523 <b>165.000 €</b></p>	 <p><b>Etxea salgai Lekuak</b> XVI mendeko etxea errenovatu. Auzo 300 m<sup>2</sup>, 4 gela, 2 kamarak, bi kamarak, berrikuntza eta gogoratu eta trantselakua. Irteerak 2000€.</p> <p>Ref: 04530 <b>440.000 €</b></p>

**"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN**



# bertako

igogailuak | ascensores  
igogailuen mantentzen-lanak

**24 orduko**  
benetako zerbitzua



Pieza guztiak barne  
**100 eurotik aurrera**

**Euskarazko**  
zerbitzu profesionala



**EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN**  
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN  
**IRAUPEN-KONPROMISO GABE**

**ESKATU AURREKONTUA**

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)  
[info@bertako.eus](mailto:info@bertako.eus)  
691 64 79 65